

BIO4RES PROIEKTUAREN EBALUAZIOA INTERREG EUROPE PROGRAMAREN ESPARRUAN

Posted on 02/06/2025 by Naider

[Naiderretik](#), [NASUVINSA](#) Nafarroako Gobernuaren etxebizitza eta hirigintzako sozietate publikoari laguntzen ari gatzaizkio [BIO4RES](#) europar proiektuaren ebaluazioan. [Interreg Sudoe](#) programak finantzatutako ekimena da, **baso-kudeaketa jasangarrian eta suteen prebentzioan oinarritua**, landa-eremuen erresilientzia indartzeko.

NASUVINSAk gidatzen du **proiektua**, [Lursarea agentziaren](#) bidez, eta SUDOE espazioko basoetan (Espainiako estatuan, Portugalen eta Frantziako hegoaldean) sute-arriskuen prebentzioa eta kudeaketa hobetzea du helburu. Horretarako, erauzitako baso-biomasaren balorizazioa sustatzen da, prebentzio-planen bideragarritasuna bermatzeko bide gisa, eta, aldi berean, baso-ekosistemen erresilientzia indartzen da, haien funtzio ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak arriskuan jarri gabe.

BIO4RESek bost erakunde onuradunez osatutako lankidetzak du, eta, NASUVINSAz gain, Centre de Ciència i Tecnologia Forestal de Catalunya Bioeconomia i Governança (Katalunia), Union des Communes Forestières du Grand Sud eta Estera Innovation (Frantzia), eta Tâmega e Sousa (Portugal) udalerrien arteko komunitatea.

Naiderr proiektuaren ebaluazioaren arduraduna da funtsezko hiru faseetan: **hasierakoa, tartekoa eta amaierakoa**. Hasierako fasean, abian, proiektuak SUDOE programaren helburuekin duen lerrotasun-maila aztertu dugu, eta hurrengo etapetan aplikatuko den **metodologia** definitu dugu.

Tarteko ebaluazioan, elkarrizketak egingo dira proiektuaren erakunde onuradunekin, ikaskuntzak, balizko doikuntzak eta hobetzeko aukerak identifikatzeko, **proiektua bere garapenean estrategikoki birbideratzeko**.

Azken ebaluazioan, stakeholder multzoari zuzendutako **online galdetegi** bat diseinatu eta banatuko da, bazkide nagusietatik harago, **helburuen lorpen-maila** ebaluatzeko eta jarraipena eta eskalagarritasuna lortzeko gomendioak egiteko.

Aurreikuspenen arabera, BIO4RES proiektua **2026. urtearen amaieran** amaituko da, eta orduan entregatuko da proiektuaren **azken ebaluazioa** ere.

